

Twitterren eta beste sare sozialetan idazten hasi

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Apirilaren 26a eta maiatzaren 3a	IKASGELA/ TOKIA	EJIEko 1. gela Eusko Jaurlaritzaren (Lakua 2) Gasteiz
IRAUPENA	9 ordu	ORDUTEGIA	09:00-13:30
MATRIKULA EPEA	Martxoaren 20ra arte	ONIRITZI EPEA	Apirilaren 19ra arte
IKASLE KOPURUA	15 gehienez ere	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak
IRAKASLEA	Jose Ramon Rodriguez	MATERIALA	
DISEINUA	Iñaki Arantzabal	AZPIEGITURA	Ordenagailua, proiektorea, internet-konexioa eta arbela

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK

Gaur egun puri-purian dauden sare sozialak gure proiektu edo ekintzak zabaltzeko nola erabili eta zein den horretarako hizkera egokia ikasiko dugu. Sare sozialak kudeatzeko tresna nagusiak ezagutuko ditugu. Esperientzia interesgarri batzuk ikusiko ditugu, asmatu dutunek nola egin duten aztertzeke. Alde praktikoa landuko da.

“**Community Manager**” bat izateko ezagutza eta gaitasunak jasotzea da ikastaroaren helburu nagusia.

(*“**Community manager**” edo komunitate baten kudeatzailea, Interneteko talde batean, sortu, kudeatu eta dinamizatzeke rola jokatzeko duen pertsona da, plataforma edozein delarik ere.

HELBURU ZEHATZAK

Sare sozial nagusiak ezagutuko ditugu eta berauek kudeatzen ikasiko dugu:

- Twitter, Facebook, Instagram, Youtube, ...

Tresna edo aplikazio horien gaineko informazio orokorra jasotzeaz gain ondorengoak ikasiko dugu:

- Kontuak sortu
- Edukiak sortu
- Nola idatzi sare bakoitzean
- Edukiak zabaltu
- Eragin-trukea edo interaktibitatea sustatu
- Erabilera estatistikak aztertu
- Sareen arteko loturak

Erakunde edo enpresen esperientzia interesgarri batzuk aztertuko ditugu, besteen eskarmentutik ikasteko.



Twitterren eta beste sare sozialetan idazten hasi

GAITASUNAK

Ikastaroa egin ondoren ikaslea gai izango da interneten dauden sare sozial nagusiak kudeatzeko eta proiektu baten inguruan sare sozialak erabiltzeko, proiektu horren zabalkundearen mesedetan.

Tresna eta sigla asko daude esparru honetan, eta horietan galtzeko arriskua dugu. Oinarrizko gaitasunak ondo ikasi, eta sare sozialetan partaide aktiboa izateko ezagutza jasotzea da ikastaroan bilatuko duguna.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

Sei unitatez eta hainbat ariketez osatuta dago ikastaroa. Unitatez unitate edukiak landuko ditugu, eta haiei dagozkien ariketak egingo. Ikasleen galderak eta partehartzea edozein momentutan onartuko dira. Zalantzak argitzeko foroak erabiliko dugu, eta tutorea izango da gidari ikastaroak dirauen artean.

1. Unitatea: Sarrera

- Zergatik eta zertarako sare sozialak?
- Zein sare sozial?

2. Unitatea: Aplikazioak erabiltzen ikasten

- Twitter
- Facebook
- Youtube
- Instagram (edo Flickr)
- Denbora eta interesaren arabera: Blogger, Mailchimp eta Hootsuite
- Aplikazioak eta euskara
- Eragin-trukea edo interaktibitatea sustatzen

PROGRAMA

3. Unitatea: Irudien eta bideoen oinarrizko lanketa. Irudien eta bestelako en egile eskubideak.

4. Unitatea: saretan idazteko hizkera egokia, aholkuak eta praktika onak

5. Unitatea: Arrakasta kasuak, besteen esperientzia

6. Unitatea: Ondorioak eta eduki nagusien errepassoa

MODALITATEA:**HIZKUNTZA:****EUSKARA**

Twitterren eta beste sare sozialetan idazten hasi

EBALUAKETA

Ikastaroaren ebaluaziorako unitateetako ariketak eta aprobetxamendua izango dira kontuan.

**IKASTAROAREN
BALORAZIOA**

Ikasleen lineako gogobetetze-inkesta eta irakaslearen balorazio inkesta

**ZIURTAGIRIA:
APROBETXAMENDUA**

% 80ko bertaratzea, eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena. (EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zka)

PREZIOA

114 €

OHARRA